

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Prozedura hauetan interesdun izan litezkeenei dei egitea: 17/2020 prozeduran, Francisco Javier Fernández de Gamboa Beitia jaunak jarri duena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegian bideratu dena, eta 17/2020 prozeduran, Antonio González Pérez jaunak jarri duena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian bideratu dena

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakitera ematen da:

– Francisco Javier Fernández de Gamboa Beitia jaunak azaroaren 22ko 473/2019 Foru Aginduaren aurka 17/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso laburtua jarri eta berorren espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2 zenbakiko Epaitegira bidali egin dela. Agindu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio orokorreko 2018ko Enplegu Publikoko eskaintzan Administrazio Orokorreko eskalako, Administrazioaren azpieskalan funtzionario gisa sartzeko deialdian oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratzea onartu zuen epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi zen. (Espte. 243/2018 (8259)).

– Antonio González Pérez jaunak azaroaren 22ko 478/2019 Foru Aginduaren aurka 17/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso laburtua jarri eta berorren espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegira bidali egin dela. Agindu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio orokorreko 2018ko Enplegu Publikoko eskaintzan Administrazio Orokorreko eskalako, Administrazioaren azpieskalan funtzionario gisa sartzeko deialdian oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratzea onartu zuen epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi zen. (Espte. 243/2018 (8259)).

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a

Funtzio Publikoko zuzendaria
ADOLFO LANDER VERA